ZINEGOAK

WWW.ZINEGOAK.COM

>> OINARRIAK
XXIV ZINEGOAK

Bilboko LGTBIQ+ Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia 2027
Festival Internacional de Cine y Artes escénicas LGTBIQ+ de Bilbao 2027
Bilbao International LGTBIQ+ Film and Performing Arts Festival 2027

OINARRIAK XXIV. ZINEGOAK
Bilboko LGTBIQ+ Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia 2027

AZALPENA

Zinegoak Zinegoak Elkarteak antolatutako jaialdia da, eta 2027ko ekainaren 21etik 29ra egingo da Bilbon.

PARTE-HARTZAILEAK

Zinegoak 2027 jaialdian parte hartu ahal izango dute LGTBIQ+ komunitatearen sexu-, genero- edo familia-aniztasun gaiak jorratzen eta ezagutarazten duten filmek, betiere beren ekoizpen prozesua 2025ko urtarrilaren 1etik aurrera bukatu bada, eta Zinegoaken parte hartu aurretik Euskal Herriko zinema-areto komertzialetan estreinatu ez badira, ezta plataforma digitaletan eskuragarri egon ere.

IZENA EMATEA

Zinegoak 2027ko aurre-hautaketan parte hartu ahal izateko, 2027ko martxoaren 1a baino lehen eman beharko da izena, Festhome plataformaren bidez edo films@zinegoak.com helbidera mezu elektroniko bat bidaliz.

SAIL OFIZIALA

Antolakuntza 2027ko apirilaren 16a baino lehenago harremanetan jarriko da jaialdian parte hartzeko hautatuak izan diren hautagaiekin, eta hautatuen zerrenda 2027ko ekainean argitaratuko da.

Hautatutako lanak 4 sailetan banatuko dira, iraupenaren eta motaren arabera: FIK fikziozko film luzeak (45 minututik gorakoak), DOK film luze dokumentalak (45 minututik gorakoak) eta KRAK fikziozko film luzeak edo dokumentalak (narratiba berriak edo proposamen estetiko berriak, 45 minutu baino gehiagoko iraupenarekin). Horrez gain, film laburren kategoria ere egongo da (fikziozkoak edo dokumentalak, 45 minutukoak edo laburragoak).

Zinegoakek eskubidea izango du filmaren zati bat erabiltzeko, gehienez 90 segundo, hedabideetan zabaltzeko.

HAUTATUEN BETEBEHARRAK

Sail ofizialerako hautatuak izan diren filmen ordezkariek ondokoa bete behar dute:

- Emanaldiaren kopia bidali behar dute (Bluray, H264 edo DCP) 2027ko maiatzaren 1a baino lehenago. Ez da onartuko baldintza hauetan bidalitako kopiarik: bukatu gabe badago, egoera txarrean badago, kopia kalitate txarrekoa bada edo eskatutako formatuan ez badago.
- Kopiak azpitituluak behar baditu, honakoa gehitu beharko zaio:
  - » Azpitituluen fitxategia (.srt) edota elkarrizketa-zerrenda gaztelaniaz, baldin badago.
  - » Azpitituluen fitxategia (.srt) edota elkarrizketa-zerrenda ingelesez edo frantsesez, 2027ko maiatzaren 1a baino lehenago.
- Filmaren trailerra bidali behar da, azpititulurik gabe eta honako formaturen batean: .mov, .mp4, H264, Full HD (1080).
- Hiru fotograma, filmaren kartela eta zuzendariaren argazki bat bereizmen handian (300 ppp).
- Emanaldiaren kopiak posta elektronikoz films@zinegoak.com edo helbide honetara bidal daitezke: Asociación Zinegoak Elkartea C/ Maiatzaren Biko kalea, 7 (baxua, ezk). 48003 Bilbao - Bizkaia

Materiala jasotzen ez bada edo ezarritako epetik kanpo jasotzen bada, antolakuntzak eskubidea izango du filma lehiaketatik kanpo uzteko. Zinegoaken parte hartzeko hautatutako lanak ezingo dira atzera bota azken emanaldiaren amaierara arte.

MATERIALAK BIDALTZEA ETA ITZULTZEA

Emanaldiaren kopiaren bidalketa-gastuak filmaren banaketa-etxeari edo ekoizpen-etxeari dagozkio. Zerga eta aduana arazoak saihesteko, emanaldirako kopiaren paketean hauxe jarriko da: ACTIVIDAD CULTURAL SIN VALOR COMERCIAL - BALIO KOMERTZIALIK GABEKO KULTUR JARDUERA.

Materiala itzultzeko gastuak Zinegoakek ordainduko ditu. Kopia guztiak dagokion banaketa- / ekoizpen-etxeari itzuliko zaizkio. Beste hartzaile bati bidaltzea nahi izanez gero, adierazi egin beharko da. Eta kasu horretan, ekoizpen-etxeak baimen idatzia bidali beharko du, posta elektroniko bidez, hartzaile berria eta helbide berria adieraziz.

Zinegoakek emanaldiaren kopiaren ardura izango du Bilbon dagoen bitartean soilik. Ez du ardurarik izango garraioan sor litezkeen kalteengatik edo filma galtzen bada.

Jaialdiari emandako proiekziorako kopia digitalak ez dira gordeko jaialdiaren edizioa amaitu ondoren, eskubideen titularrek berariaz eta idatziz baimena eman ezean. Era berean, kopia horiek ezin izango dira jaialditik kanpoko proiekzioetarako erabili, eskubideen titularren aldez aurreko idatzizko baimenik gabe.

HAUTAKETA BATZORDEA ETA EPAIMAHAIA

Zinegoaken ardura izango da kategoria edota sari bakoitzeko Hautaketa Batzordearen eta Epaimahaiaren osaera erabakitzea. Organo horiek LGTBIQ+ arloko zinemagintzarekin edota aktibismoarekin lotutako pertsonek osatuko dituzte, eta haien erabakiak apelaezinak izango dira.

EPAIMAHAIA

- FIK Nazioarteko Epaimahaia.
- DOK Nazioarteko Epaimahaia.
- KRAK Nazioarteko Epaimahaia.
- Euskal Aktoreen Batasunaren Epaimahaia.
- Gazte Epaimahaia, zenbait eskolatako eta erakundetako ikasleek osatua.
- Aniztasun eta Giza Eskubideen Epaimahaia. Giza eskubideen erakundeetako eta Zinema eta Giza Eskubideen Jaialdietako kidek osatua.
- Lesbianismo eta Generoaren Epaimahaia. Tokiko eta eskualdeko lesbianen eta feministen erakundeek osatua.
- Senior Epaimahaia (65 urtetik gorako kideek osatua).

SARIAK

Sariak Itxiera Ekitaldian jakinaraziko dira, eta honako kategorietan egongo dira banatuta:

- Zinegoak FIK Saria (FIK Nazioarteko Epaimahaia): FIK Film Luzerik onena
- Zinegoak DOK Saria (DOK Nazioarteko Epaimahaia): DOK Film Luzerik onena
- Zinegoak KRAK Saria (KRAK Nazioarteko Epaimahaia): KRAK Film Luzerik onena
- ZINEGOAK SARI NAGUSIA, 2027ko lanik onenarentzat (4.000€). EITBk babestutako saria. Jaialdiaren hiru kategorietan FIK, DOK, KRAK irabazi duten lanetatik, publikoaren boto gehien jaso duena.
- Zinegoak Saria Film Labur onenarentzat, publikoaren eskutik. 1.000 €ko (mila euro) saria.
- Euskal Aktoreen Batasunak honakoak emango ditu:
  - » Fikzioko Film Luzeko Antzezpen Nagusi Onenaren Saria.
  - » Fikzioko Film Luzeko Antzezpen Sekundario Onenaren Saria.
- Gazte Saria Film Labur onenarentzat.
- Senior Epaimahaiaren Saria Film Labur onenarentzat.
- Aniztasun eta Giza Eskubideen Saria, 3.000 €koa (hiru mila euro), Bizkaiko Foru Aldundiko Lankidetza eta Aniztasunerako Zuzendaritza Nagusiak babestua, munduko giza eskubideen egoera hobekien islatzen duen filmari emango zaio.
- Lesbianismo eta Generoaren Saria, 3.000 €koa (hiru mila euro), Bilboko Udaleko Berdintasun Sailak babestua, lesbianismoa eta generoa hoberen lantzen dituen filmari emango zaio.

Diruzko sariak indarrean dagoen legediak ezarritako zerga-atxikipenen mende egongo dira, eta atxikipen horiek dagokion zenbatekotik kenduko dira. Sariaren %50 filmaren Espainiako banaketa-etxearentzat izango da, baldin eta saria ematen den unean edo 2027an zehar halakorik badu. Gainerako %50a filmaren zuzendaritzaz arduratzen den pertsonarentzat izango da. Filmak Espainiako banaketa-etxerik ez badu, sariaren zenbateko osoa zuzendariari emango zaio.

Filmaren zuzendaritza pertsona batek baino gehiagok partekatzen badute, dagokien zenbatekoa zati berdinetan banatuko da haien artean.

Sariak 2027ko azken hiruhilekoan ordainduko dira, banku-transferentzia nominalaren bidez. Garaile ateratako lanak emanaldi-gasturik, tramite fiskalik edo bestelakorik eragingo balu, gastu hori sariaren zenbatekotik kenduko litzateke. Sariaren berri jaso ondoren, banaketa-etxeak, ekoizleak edota zuzendaritzak dagozkion dokumentuak eta datuak bidali beharko dizkio antolakuntzari, askoz jota 7 hilabeteko epean. Epe horren barruan bidali ezean, erreklamaziorik egiteko eskubidea galduko du.

IRABAZLEAK

Zinegoaken sariak edo aipamenak jasotzen dituzten filmen ekoiztetxeek, banatzaileek edo ordezkariek jasotako aitortza adierazi beharko dute bai ondorengo emanaldietarako erabiliko diren kopietan, bai filmen sustapen-, publizitate- eta komunikazio-materialetan, jaialdiaren antolakuntzak emandako testu eta logotipo ofizialak erabiliz.

OINARRIEN ONARPENA

Honako araudi hau euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz argitaratu da.

Zinegoak 2027 jaialdiaren parte hartzeak, oinarri hauek eta Zinegoak taldearen erabakiak onartzea dakar.